

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2361

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 13koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira 2022-2023 ikasturtean Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeentzako dirulaguntzen ebazpen-proposamena egiteaz arduratuko den balorazio-epaimahaiko kideak.

Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dituen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko martxoaren 9ko Aginduaren 12. artikulua dioenez, aurkeztutako eskabideak aztertzeko balorazio-epaimahai bat eratuko da, kide hauek izango dituen: Ingurumen Hezkuntza, Prestakuntza eta Sentsibilizazioko Zerbitzuaren arduraduna, epaimahaiburu gisa; eta Ingurumen Sailburuordetzako bi teknikari, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariak izendatuak (Sailburuordetza horretan antzinate handiena duen pertsonak jardungo du idazkari-lanetan). Balorazio-epaimahaiaren osaera izenduna EHAAn argitaratuko da, EAEONALTB-ren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Esandakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeei Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko ematen zaizkien dirulaguntzen ebazpen-proposamena egiteaz arduratuko den balorazio-epaimahaiko kide izendatzea pertsona hauek:

Epaimahaiburua:

Joseba Ruiz de Loizaga Lafuente, Ingurumen Hezkuntza, Prestakuntza eta Sentsibilizazioko Zerbitzuaren arduraduna.

Kideak:

Saioa Torres Zurutuza, Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzako teknikaria.

Lidia Prieto Espejo, Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzako teknikaria, zeina idazkari izango baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 13a.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA.